



ENPRESAKO ON LINE TUTORIALETAN DATUAK EZEREZTEKO LANGILE BATEN ESKUBIDEARI BURUZ, XXXXX JAUNAK EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2011ko martxoaren 31an XXXXX jaunak bidalitako kontsulta-idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta-idazkiak honakoa zioen:

“... Nire enpresak informatika zerbitzuak eskaintzen dizkie zenbait enpresa eta euskal administrazio publikori. Langile bat kontratatu genuen (bere irudiarekin eta ahotsarekin) enpresak garatutako software aplikazioen funtzionamenduari buruzko tutorialak grabatzeko eta gure bezeroei aplikazio horiei buruzko zerbitzu teknikoa emateko ere bai, kontuan izanda entitate pribatuak nahiz gure erkidegoko administrazio publikoak izan daitezkeela bezeroak.

Pertsona horren lan-kontratuan berariaz jasota dago berak egindako tutorialak eta zerbitzu teknikoko jarduerak grabatu ahal izango direla, bai audio bidez (ahotsa) bai bideo bidez (irudia eta ahotsa), bezeroen eskura egon daitezen.

Lan-kontratuan berariaz jasotzen dira honakoak:

- 1. Langileak grabazioen berri du eta grabazioak egiteko baimena ematen du, bai eta grabazioak bezeroen artean banatzeko ere, esandako baldintzak kontuan hartuta.*
- 2. Baimena ematen du bere datu pertsonalak (ahotsa eta irudia) tratatzeko xede horretarako, nahiz eta enpresarekin duen harremana bukatu.*
- 3. Ahotsaren eta irudiaren gaineko eskubideak enpresari lagatzen dizkio, grabazioetan erabil dezan, nahiz eta enpresarekin duen harremana bukatuta egon.*

Arazo hau sortu da: langilea enpresatik alde egitera doa eta berak grabatutako tutorialak eta euskarri teknikoan egindako jarduerak ezabatzeko eskatzen du. Berak dio bere datu pertsonalak direla eta datuak “ezeztatzeke eta ezabatzeko eskubidea duela”.

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:



“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Hasteko, Bulegoaren eskumenei buruzko ohar bat egin behar da, planteatutako gaiari buruzko irizpena eman nahi bada.

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 n) artikuluan xedatutakoaren arabera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak otsailaren 25eko 2/2004 Legearen ezarpen eremuan dauden tratamenduen gaineko kontsultak baino ezin ditu erantzun.

Beraz, galderei erantzun aurretik, ezinbestean argitu behar da ea tratamendu horiek 2/2004 Legearen ezarpen-esparruan dauden ala ez.

II

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 2.1 artikulua xedatzen du zein den zehatz-mehatz legearen ezarpen eremua eta zera dio hitzez hitz:

“1.- Datu pertsonaletarako fitxategietan aplika daiteke lege hau. Zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko sortu edo kudeatuak behar dute izan fitxategi horiek; honako hauek sortuak edo kudeatuak:

- a) *Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak, lurralde historikoetako foru-organoek, Euskal Autonomia Erkidego barruko toki-administrazioek eta, zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko sortu bazituzten, herri-administrazioen menpeko edo haietara loturiko edonolako erakunde publikoek.*
- b) *Eusko Legebiltzarrak.*
- c) *Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak.*
- d) *Arartekoak.*
- e) *Lan Harremanen Kontseiluak.*
- f) *Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak.*
- g) *Kooperatiben Goren Kontseiluak.*
- h) *Datuak Babesteko Euskal Bulegoak.*
- i) *Ebazpen Batzordeak.*
- j) *Interes ekonomiko eta profesionalak ordezkatzeko dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide publikoko korporazioek.*
- k) *Eusko Legebiltzarrak lege bidez sorturiko beste edozein organismo edo erakunde –berdin dio nortasun juridikoa duen edo ez–, lege horrek bestelakorik xedatzen ez bada.”*



Goiko testu horretatik argi eta garbi ondorioztatzen da, hitzez hitz hala esaten baitu, honakoa:

a) Izenburua ikusita, kasu bietan esan behar da 2/2004 Legearen ezarpen eremuan daudela ondoren aipatzen diren ente publikoek “zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko” “sorturiko edo kudeaturiko fitxategiak” (edo sortu dituztenak edo kudeatzen dituztenak). Hori da gure ustez 2/2004 Legearen ezarpen eremu objektiboa (fitxategi horiei aplikatzen zaie Lege hau).

b) Ikuspuntu subjektibotik abiatuta (fitxategien titularrak diren edo fitxategiak kudeatzen dituzten subjektuak), 2/2004 Legea a) letratik k) letrara bitartean aipatzen diren ente publikoei aplikatu behar zaie, baldin eta “zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko” sortu badira, hau da, “herri-administrazioen menpeko edo haietara loturiko edonolako erakunde publikoak badira”.

Esandako guztia bat dator, eta horrela izan behar da nahitaez, 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 1.1 artikulua ezarritako ezarpen esparruarekin.

2/2004 legearen ezarpen eremuak finkatzen du zein den DBEBren eskumen esparrua.

Ikuspuntu biek, bai subjektiboak bai objektiboak, Legearen ezarpen eremutik kanpo uzten dituzte titulartasun pribatuko enpresak, enpresa pribatuak ezin direlako sortu zuzenbide publikoko ahalez baliatzeko, ezin dituztelako baliatu, eta ezin dutelako fitxategirik sortu edo kudeatu kategoria horretako ahalez baliatzeko.

Beraz, esandako kontuan hartuta, enpresa pribatuek egiten dituzten datu pertsonalen tratamenduak, kontsultan aipatzen direnak adibidez, ez daude Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen ezarpen esparruan. Beraz, Datuak Babesteko Espainiako Agentziari dagokio kontsultari buruzko irizpena ematea, eta, bai eta, hala badagokio, aipatu diren tratamenduetatik eratorritako erantzukizunak zehazteko prozedurak hastea ere.

ONDORIOA

Enpresa kontsulta-egilearen titulartasunpekoak diren datu pertsonalen fitxategiak ez daude Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2004/25 Legearen ezarpen esparruan.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko ekainaren 27an